

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2011-12-22

Haurrentzako album ilustratu bat eta ipuin bat kaleratu ditu Ereinek

Arrate Egañaren 'Dragoia' eta Karlos Linazasororen 'Nuvolari plaza' lanak argitaratu ditu argitaletxeak

ERREDAKZIOA DONOSTIA

Erein argitaletxeak haurrentzako bi lan kaleratu ditu urtea amaitu aurretik: Arrate Egañaren *Dragoia* eta Karlos Linazasororen *Nuvolari plaza*. Egañaren lana Mari Mar Agirrek ilustratu du; Linazasororena, berriz, Antton Olariagak. *Dragoia* album ilustratua da, 7 eta 9 urte arteko haurrentzat sortua. Egañak eta Agirrek elkarlanean landu dute lana, eta «papiroen itxura» hartu du azken emaitzak. Bi haurren arteko harremana jorratu dute, herrira heldu berria den neska txinatar baten eta bizitza zailtzen dion ikaskide baten artekoa, hain zuzen. Egañak «estilo nahiko errealista» eman dio lanari, eta Agirrek hainbat teknika erabili ditu lanari «antigoaleko» itxura emateko.

Linazasororen eta Olariagaren *Nuvolari plaza* 8 eta 10 urte arteko haurrentzako ipuin fantastikoa da. Matteomiglia herriko Nuvolari plazaren inguruan girotzen da ipuina. Herri xelebrea da, eta halakoxeak dira bertako biztanleak eta gertakariak ere. Umorea, ironia eta poesia erabilia, «oso gaurko mezua» josten du lanak. Franti herrian bizi da, eta dagoeneko badaramatza hainbat urte han bizitzen. Linazasorok 2003an sortu zuen pertsonaia, *Franti* liburuan, eta geroztik bizirik mantendu du. Orain arte Jokin Mitxelenak ilustratu du.



Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 Bilbobuseko langileek lanuzteekin jarraitzen dute, atzo zuzendaritzarekin bildu ondoren
- 2 Tuaregek diote militar kolpistek boterea hartu izanak ez duela haien jardunean "ezer" aldatzen
- 3 Lau ibilgailu erre dira Bilbon, ezusteko sute batean
- 4 'Bateragune auziko' zigortuak absolbi ditzatela eskatzeko, agerraldia egingo dute bihar hainbat lagun ezagunek Donostian
- 5 Bi ikasle axiloto dituzte Iruñean, beste hezkuntza eredu baten aldeko greban



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa